

Inklusiorako V. Plan Operatiboa 2022-2026

II. Plan Operatiboa 2025-2026

2025eko jarraipen-txostena



EUSKO JAURLARITZA

EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. 2022-2026 V. EUSKAL PLANAREN JARRAIPENA	5
2.1. 2025-2026ko II. Plan Operatiboa lanketa	5
2.2. V. Planean espero diren emaitzak bete diren baloratzea	6
3. II. PLAN OPERATIBOAREN JARRAIPENA 2025EAN	34
3.1. Trakzio-politikak	34
3.2. Inklusiorako proiektu esperimentalak	45
3.3. Inklusiorako ibilbide mistoak	57
3.4. Aurrekontua gauzatzea	62

1. SARRERA

1.1. AURREKARIAK

Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 4/2022 Legearen 129. artikulua ezartzen duenez, euskal administrazio publikoek modu koordinatuan planifikatu beharko dituzte sistemaren helburuak eta tresnak, lehentasunezko jarduera-ardatz komunak zehazteko eta autonomia-lurralde osoan babes-maila homogeneoak sustatzeko. Plangintza hori Inklusiorako Euskal Planaren bitartez gauzatzen da autonomia-erkidegoaren eremuan, eta plangintza egitean bermatu behar da euskal administrazio publiko guztiek eta sektorean esku hartzen duten beste erakunde publiko eta pribatu batzuek zuzenean parte hartuko dutela.

Xedapen horiek betez, 2022ko abenduaren 27an, Gobernu Kontseiluak Inklusiorako V. Euskal Plana 2022-2026 onartu zuen. Aurreko planei dagokienez, eta IV. Planaren ebaluaziotik eratorritako konklusioei erantzunez, Inklusiorako V. Euskal Planak hainbat hobekuntza sartzen ditu, eta horien artean bi planotan edo mailatan egituratzea nabarmentzen da:

- Alde batetik, esparru estrategiko bat, bazterkeria-arriskuan edo egoeran dauden pertsonak gizarteratzea lortzeko administrazio eskudunen jarduera bideratu behar duten esku-hartze eta jarduketarako ildoak eta jarraibideak modu koordinatu eta orokorrean jasotzea helburu duena. Esparru estrategiko hori, funtsean, aipatutako V. Inklusiorako Planean zehazten da. Plan horrek erronkak, helburuak, orientabide orokorrak eta espero diren emaitzak zehazten ditu.
- Bestalde, plan operatibo espezifiko batzuk, bi urtez behingo izaera dutenak, Planari lotutako erakundeek aldi bakoitzean garatzeko hartzen dituzten konpromisoak eta trakzio-proiektuak jasotzen dituztenak. Planteamendu horretatik abiatuta, 2023ko ekainean onartu zen lehen Inklusio Plan Operatiboa, 2023-2024koa, eta, 2025eko uztailean, Inklusiorako Bigarren Plan Operatiboa onartu da 2025-2026 aldirako.

1.2. HELBURUAK

Inklusiorako V. Euskal Planak (2022-2026) eta ondorengo plan operatiboek urteko bi jarraipen-txosten egitea aurreikusten dute, bi helburu nagusirekin:

- Maila estrategikoan, V. Planean ezarritako espero diren emaitzak betetzen diren baloratzeko, eskura dauden estatistika-iturriak aztertuta.
- Esparru operatiboan, plan operatiboetan aurreikusitako politiken, proiektuen eta jardueren garapena deskribatzea.

Txosten honen helburua eskakizun horiek batera betetzea da, ebaluazio-galdera hauei erantzunez:

- V. Planari dagokionez, zer neurritan egin da aurrera planaren hedapenean? Nolako bilakaera izan dute V. Planean aurreikusitako espero diren emaitzei buruzko adierazleek?

- II. Plan Operatiboari dagokionez, zein neurritan garatu dira hura osatzen duten politika aringarriak, programa esperimentalak eta ibilbide mistoak? Zein izan da prozesuaren eta aurrekontu-betearazpenaren adierazleen bilakaera?

1.3. METODOLOGIA

Metodologiaren ikuspegitik, azterlan hau kanpoko jarraipentzat har daiteke –kanpoko talde tekniko batek egiten du–, erdibidekotzat edo prozesukotzat –bi planen indarraldian egiten da–, deskribatzailetzat –egin-dako jarduerak zehazten dira– eta partaidetzazkotzat –inplikaturako erakundeek ekarpenetan oinarritzen da–.

Jarraipenaren helburuei erantzuteko, informazioa biltzeko bi prozesu paralelo aktibatu dira. Inklusiorako V. Euskal Planaren kasuan, adierazle-koadroaren sistematizazioan aurrera egin da, planak berak ezartzen zituen eta espero ziren emaitzetatik abiatuta, eta aldizkako eta eguneratze erregularreko estatistika-eragiketa bateratuak oinarri hartuta, bazterketa-egoeren eraldaketa monitorizatu ahal izateko.

II. Plan Operatiboari dagokionez, 2025eko ekitaldian egindako jardueren jarraipena egiteko, erakunde arduradunei fitxa pertsonalizatua bidali zitzaien, plana osatzen duten politika traktore, proiektu esperimental eta inklusiorako proiektu misto bakoitzaren datu eguneratuak biltzeko. Zehazki, erakundeei honako datu hauek eguneratzeko eskatu zitzaien, 2025. urtearen amaieran:

- Proiektuaren deskribapena, eguneratua.
- Benetan gauzatutako aurrekontua.
- Prozesuaren edo emaitzen adierazleak.

2025eko azaroan, informazio-eskaera egin zen, eta abenduaren 20an¹ erantzun zen; epe hori geroago luzatu zen, 2026ko otsailaren 3ra arte, espero zen erantzun-indizea bermatzeko. Horrela, inplikaturako erakundeek %100eko erantzun-tasa lortu ahal izan dute, eta II. Plan Operatiboa osatzen duten politika eta programa guztiei buruzko informazioa eguneratu da.

1.4. TXOSTENAREN EGITURA

Txosten honek V. Inklusio Plana eta II. Plan Operatiboa osatzen duten bi mailen egitura erreproduzitzen du. Hala, sarrerako lehen zati horren ondoren, bi kapitulutan, bai esparru estrategikoan bai inklusio-politiken maila operatiboenean egindako aurrerapen nagusien jarraipena egiten da.

Inklusiorako V. Euskal Planaren kasuan, bigarren kapituluak planaren hedapenaren jarraipena egiten du –bi Plan Operatibo eginez–, baita Planak berak ezartzen zituen espero ziren emaitzei buruzko adierazleen bilakaera ere.

II. Plan Operatiboaren jarraipenak, bestalde, 2025. urtean egindako aurrerapenak aztertzen ditu, ondoko hiru jarduera-mailatan: politika traktoreak, inklusio-proiektu esperimentalak eta laguntza-ibilbide mistoak.

¹ Praktikan, beraz, emandako informazioa ez da beti ekitaldiaren itxierari buruzkoa; batzuetan, 2025eko azaroko datuak dira, eta/edo abenduaren 31ko estrapolazioak.

2. 2025EKO V. EUSKAL PLANAREN JARRAIPENA

2022-2026 Inklusiorako V. Euskal Planaren kasuan, txostenak planak berak ezartzen zituen bi egikaritze-, jarraipen-, ebaluazio- eta gobernantza-mekanismoren jarraipena izan du ardatz:

- Esparru estrategikoa onartzea eta plan operatiboak egitea eta hedatzea.
- Adierazleen aginte-taula bat diseinatzea, bazterkeria-egoeren jarraipena egiteko eta espero diren emaitzak lortzeko.

2.1. 2025-2026KO II. PLAN OPERATIBOAREN LANKETA

Sarrerako zatian adierazi den bezala, Esparru Estrategikoaren garapenaren lehen mugarrria 2022-2026 aldirako Inklusiorako V. Euskal Plana bera onartzea izan zen. Plan horrek, diru-sarrerak bermatzearen eta inklusioaren arloan indarrean dagoen araudian ezartzen den bezala, administrazio publikoek, beren eskumenak gauzatzean, arlo horretan beren politikak aplikatzerakoan kontuan hartu behar dituzten orientabideak eta jarraibideak jasotzen ditu.

V. Plana 2022ko abenduan onartu ondoren, eta lehen 2023-2024 Plan Operatiboaren indarraldia amaitu ondoren, bigarren Plan Operatiboa egiteko aldia hasi zen, eta 2025eko uztailan amaitu zen. Bigarren Plan Operatibo honek 2025-2026 aldia hartzen du, eta lau jarduera-mailaren arabera egituratzen da:

- **Trakzio-politikak** Eusko Jaurlaritzako sailen politika publikoak, sistema eraldatzeko eta V. Planean ezarritako helburuak lortzeko bultzatzaile edo bizkortzaile gisa jarduten dutenak.
- **Inklusiorako proiektu esperimentalak** Izaera esperimentaleko programak, erakunde publikoek zein gizarte-erakundeek sustatuak, ikuspegi berezi eta berritzailea ematen dutenak eta, emaitza positiboak lortuz gero, beste eremu edo lurralde batzuetara zabal daitezkeenak.
- **Inklusiorako ibilbide mistoak.** Arrisku edo bazterketa soziolaboraleko egoeran dauden pertsonen laguntzeko prozesu pertsonalizatuak, sektore arteko arreta koordinatua edo sareko arreta eskaintzeko Ongizate Estatuko hainbat sistemaren artean.
- **Aldaketarako jarduerak.** Administrazio publikoek –Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta Udalek– 2025 edo 2026rako aurreikusita dituzten neurriak, V. Planaren helburuak lortzeko. Neurri horiek aurrerapena edo hobekuntza dakarte, aurretik garatzen ari ziren jarduketekin alderatuta.

Jarraipenari dagokionez, II. Plan Operatiboa (2025-2026) egiteko eta onartzeko prozesua beste mugarri bat da Inklusiorako V. Euskal Planaren (2022-2026) hedapenean eta betetzean.

2.2. V. PLANEAN ESPERO DIREN EMAITZAK BETE DIREN BALORATZEA

Inklusiorako V. Euskal Planak (2022-2026) lehentasunezko erronka batzuk ezartzen ditu, eta horiei erantzun nahi die. Aurrerapen-maila ebaluatzeko, epe ertain eta luzean lortzea espero diren emaitza espezifiko batzuk zehazten ditu. Aldaketa horiek, *espero diren emaitzak* izenekoak, euskal herritarren egoera hobetzera eta beharrezanean erantzutera bideratuta daude, besteak beste, ondoko arlo hauetan: pobrezia, bazterkeria, enplegua, hezkuntza- eta osasun-desberdintasunak, etxebizitza eskuratzea edo herritarren parte-hartzea.

Ildo horretan, V. Planak Adierazleen Aginte Taula bat diseinatu eta aplikatzea aurreikusten du, bazterketa-egoeren eraldaketaren monitorizazioa sistematizatzeko eta, azken buruan, ezarritako espero diren emaitzak betetzeko. Era berean, Planak ezartzen du urteko jarraipen-txostenek Aginte Taula osatzen duten adierazleen azterketa jasoko dutela, emaitza horien aldaketa baloratu ahal izateko. Kapitulu honek errekerimendu horri erantzuten dio.

Metodologiaren ikuspegitik, garrantzitsua da zenbait ohar egitea. Azterketa horrek [I. plan operatiboaren 2023ko jarraipen-txostenean](#), eta [2023-2024ko jarraipen-txostenean](#) aurkeztutako emaitzen balorazioa eguneratzen du, eta, ahal den neurrian, iturri estatistiko berberak mantentzen ditu, bi ebaluazioen arteko koherentzia eta alderagarritasuna bermatzeko.

Hala ere, 2023-2024 jarraipen-txostenean azaldu zen bezala, erreferentziako estatistika-eragiketa batzuk argitaratzeko maiztasunak baldintzatu egiten du *espero diren emaitzen* jarraipen jarraitua eta homogeneoa egiteko aukera. Muga hori konpontzeko, alternatiba bideragarria den kasuetan, ondoko estatistika-eragiketa osagarriak erabili dira:

- Pobrezia eta Gizarte Desparekotasunei buruzko 2024ko Inkestaren (PGDI) emaitzak oraindik argitaratu ez direnez, Estatistikako Institutu Nazionalaren Bizi Baldintzen Inkestako (BBI) datuetara jo da berriz ere, pobrezia, desberdinkeria eta gizarte-bazterketaren arloan espero diren emaitzen zati handi baten bilakaera aztertzeke. Ildo horretan, berriz ere adierazi behar da BBik Euskadira duen lagin-tamaina PGDIrena baino nabarmen txikiagoa dela, eta horrek ziurgabetasun-elementu bat sartzen du emaitza batzuei buruz, bereziki desagregazio-maila handiena duten emaitzetan.
- Jarraipen horren esparruan garrantzi berezia duen arren, PGDIren datu eguneratuen faltak eragotzi egin du Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema osatzen duten prestazioen eraginaren eta irismenaren bilakaera aztertzea.

Espero diren emaitzak sei eremuren inguruan egituratzen dira: (1) *Pobrezia, desberdinkeria eta gizarte-bazterketa*; (2) *Enplegua*; (3) *Etxebizitza eskuratzea*; (4) *Harremanen integrazioa*; (5) *Hezkuntza eta osasuna*; (6) *Herritarren parte-hartzea, ekitatea eta diskriminaziorik eza*. Txosten honetan, aurrekoan ez bezala, eremu bakoitzak gutxienez espero zuen emaitza baten bilakaera aztertu ahal izan da. Gainera, espero diren hiru emaitza berriri dagozkien ebaluazioak sartu dira lehenengo aldiz (10., 28. eta 32. zk.).

Hurrengo taulan Planean *espero diren emaitza* guztiak zerrendatzen dira, eta jarraipen-txosten bakoitzean zein aztertu diren adierazten da.

1. Taula Inklusiorako V. Euskal Planean espero diren emaitzen azterketa sartzea 2023, 2024 eta 2025eko segimendu-txostenetan.

Arloa	Zkia.	Espero diren emaitzak	2023	2024	2025
Pobrezia, desberdinkeria eta gizarte-bazterketa	1	Lehen-mailako pobrezia-aren hazkunderia eustea: EAEko biztanle guztien lehen-mailako pobrezia-tasak murriztuko dira, prestazioak jaso aurretik.	✓	✓	✓
	2	Prestazio-sistemaren eraginkortasuna handitzea: IT-en prestazio ekonomiko guztien lehen-mailako pobrezia murrizteko gaitasuna hobetzea.	✓	X	X
	3	Non take up-a murriztea: diru-sarrerak bermatzeko prestazioak ez eskuratzeko egungo mailak murriztuko dira, eta pobrezia-egoeran dauden eta DSBE/BGD sisteman sartzen diren biztanleen ehunekoa handituko da.	✓	X	X
	4	Pobrezia-, bazterketa- eta desberdinkeria-tasak murriztea: pobrezia-aren, desberdinkeria-aren eta bazterketa-aren adierazle goranzko joera lehengoratu da.	✓	✓	✓
	5	Gabezia materialaren mailak murriztea edo, gutxienez, mantentzea, gaur egun historikoki maila baxuetan: metatze-pobrezia-aren eta/edo gabezia materialaren tasak ez dira handituko.	✓	✓	✓
	6	Pobrezia-arrailek murriztea: gaur egun pobrezia-, langabezia- eta bazterkeria-tasei dagokien dauden aldeak murriztuko dira adinaren, sexuaren, jatorriaren, desgaitasunaren eta bizilekuaren ikuspegitik.	✓	✓	✓
	7	Lurralde-konbergentzia: errenta pertsonalaren maila handiena duten lurralde-eremuen (hiru hiriburu-udalerriak eta auzoak) %20ren eta errenta-maila txikiena duten auzoen %20ren arteko aldeak murriztuko dira.	✓	✓	✓
	22	Pobrezia energetikoa prebenitzea: pobrezia energetikoko egoeran dagoen biztanleriaren ehunekoa murriztuko da.	X	✓	✓
Enplegua	8	Langabezia-aren murrizketa: emakumeen eta gizonen langabezia-tasak murriztuko dira, batez ere iraupen luzeko langabeziari lotutakoak.	✓	✓	✓
	9	Soldata-arrailearen aurka jardutea: emakumeen eta gizonen arteko soldata-aldea murriztuko da.	✓	✓	✓
	10	Laneratzea bultzatzea, gizarte-ekonomia-aren eta kontratazio-aren laguntza-programen bidez: laneratzeko enpresetan, enplegu-zentro berezietan eta enplegu lagunduko programetan kontratatutako pertsonen kopurua handituko da, baita kontratazio-aren laguntza-programen onuradunen kopurua ere.	X	X	✓
	11	Soldata-igotzea: soldatapekoen hileko ordainsari garbia igoko da, batez ere lanbide-kategoria baxuetan, baita langile bakoitzeko batez besteko irabazia ere, batez ere beheko kuartilean.	✓	✓	✓
	12	Enpleguko pobrezia murriztea: lan-pobrezia-aren tasa murriztuko da, bai emakumeentzat, bai gizonentzat, baita DSBEaren esparruan enplegu-eremuaren pizgarrien sisteman sartzen diren soldata baxuko biztanleen ehunekoa ere.	✓	✓	✓
	13	Prekarietatea murriztea: enpleguan nahi ez diren behin-behinekotasunaren eta partzialtasunaren adierazleak murriztuko dira, batez ere gazteen eta emakumeen artean.	✓	✓	✓
	14	Enpleguan parte-hartzea areagotzea: lan-intentsitate txikiko etxeko unitateetan bizi diren ehunekoa murriztuko da, eta jardura-tasak handituko dira, bai gizonen artean, bai emakumeen artean.	✓	✓	✓
Etxebizitza eskuratzeko	15	Etxebizitzako gehiegizko gastua murriztea: errentaren %40 baino gehiago etxebizitza-gastuetara bideratu behar duen biztanleriaren ehunekoa murriztuko da.	X	✓	✓
	16	Bizitegi-bazterketa larria murriztea: bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen kopurua murriztuko da (pertsonak kalean, aterpetxeak eta egonaldi laburreko zentroak).	✓	X	✓
	17	Etxebizitza eskuratzeko prezioaren igoera geldiaraztea: merkatu librean alokairuko etxebizitzaren prezioa igotzeko erritmoa geldiaraziko da.	✓	✓	✓
	18	Etxegabeteak prebenitzea: etxegabeteen eta etxebizitzaren kaleratzeen kopurua murriztuko da, bai jabetza-erregimenean, bai alokairu-erregimenean.	X	✓	✓
	19	Etxebizitzarako eskubide subjektiboa gauzatzeko: sustapen publikoko alokairuko etxebizitzetan bizi diren pertsonen kopurua handituko da, baita etxebizitzako prestazio ekonomikoa jasotzen duten pertsonen kopurua ere.	X	✓	✓
	20	Etxebizitzaren birgaitzea sustatzea: Euskadin etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien ehunekoa murriztuko da.	✓	X	X

Arloa	Zkia.	Espero diren emaitzak	2023	2024	2025
Harremanen integrazioa	21	Gizarte-zerbitzuen jarduteko gaitasuna indartzea gizarte-bazterkeriaren eremuan: Gizarte-bazterkeriarekin lotutako Gizarte Zerbitzuen Karterako zerbitzuen estaldura, hiru lurralde historikoetan, EAEko batez besteko estalduraren %85 izango da, gutxienez.	✓	X	X
	27	Bazterkeria-egoeran dauden pertsonen isolamendua prebenitzea eta haien arteko harremanak hobetzea: harreman pertsonal eta familiarretan arazo sozial larriak dituzten biztanleen ehunekoa murriztuko da, batez ere gabezia ekonomikoko egoeran dauden artean.	✓	X	✓
	28	Gutxiengo etnikoen eta etorkinen inklusio-sentimendua areagotzea: oso integratuta sentitzen diren etorkinen eta ijitoen ehunekoa handituko da.	X	X	✓
Hezkuntza eta osasuna	23	Lehen-haurtzaroan inbertitzea: haurren eskolatzeta-tasa handituko da, batez ere 1 eta 2 urte bitarteko haurrena.	✓	✓	✓
	24	Hezkuntza-desberdinkeria aurrea hartzea: ISEK altua eta baxua duten ikastetxeen arteko aldea murriztuko da matematikarako gaitasunean lortutako puntuazioei dagokionez, eta DBHko 4. mailan eta Batxilergoko 2. mailan gainditutako portzentajea dauden aldeak murriztuko dira irakaskuntza-ereduaren arabera.	✓	X	✓
	25	Errenta txikiena duten ikasleek hezkuntzarako sarbidea izan dezaten sustatzea: unibertsitatez kanpoko mailetan eskolatzeko bekak eta laguntzak dituzten ikasleen ehunekoa handituko da, baita beka horietara bideratutako gastua ere.	X	X	X
	26	Osasun-arloko desberdinkeria prebenitzea: hilkortasunari, hautemandako osasunari, gaixotasun kronikoen prebalentziari eta osasun mentaleko egoerari buruzko aldeak murriztuko dira errenta-maila desberdinak dituzten lurraldeen artean eta maila sozioekonomiko desberdinetako pertsonen artean.	X	✓	X
Herritarren parte-hartzea, ekitatea eta diskriminaziorik eza	29	Parte-hartze politikoa sustatzea: errenta handieneko eta txikieneko lurralde-eremuen arteko desberdintasunak murriztuko dira, hauteskundeetako parte-hartzeari dagokionez.	X	✓	X
	30	Genero-berdintasunerantz aurrera egitea: genero-berdintasunaren indizea handituko da, batez ere denboraren, ezagutzaren eta boterearen dimentsioei dagokionez.	X	✓	X
	31	Edadismoagatiko diskriminazio-egoerak prebenitzea, batez ere 50 urtetik gorako pertsonengan.	X	X	X
	32	Garraio-sare publikoaren erabilera erraztea: garraio kolektiboaren pisua handituko da, mugikortasun osoari dagokionez.	X	X	✓


2.2.1. Pobrezia, desberdinkeria eta gizarte-bazterketa

- **Espero den emaitza 1:** *Lehen-mailako pobreziaren hazkundeari eustea: euskal biztanleria osoaren lehen mailako pobreziaren tasak murriztuko dira, prestazioak jaso aurretik.*

Pobrezia primarioa errenten banaketa primariotik datozen diru-sarreretatik abiatuta zehazten da. Kontzeptu horretan sartzen dira, batez ere, merkatuko jarduerak sortutako diru-sarrerak, hala nola soldatak eta bestelako errentak, baina pentsioen ondoriozko diru-sarrerak ere sartzen dira². Funtsean, prestazio sozialak jaso aurretik etxeko unitateetan eskura zeuden diru-sarrerak islatzen ditu.

Horrela kalkulaturik, **diru-sarrera txikien edo pobrezia-arriskuaren tasak nahiz pobrezia larriaren tasak³ gorakada txikia izan dute azken aldian**. 2023arekin alderatuta, pobrezia-arriskuaren tasa ehuneko 1,8 puntu igo da, eta pobrezia larriaren arrisku-tasa, berriz, 0,8 puntu. Hala eta guztiz ere, nahiz eta igoera izan den, aipatu behar da **bi tasak 2022rako ikusitako balioen azpitik daudela**⁴.

1. Grafikoa. Pobrezia-arriskuaren tasaren eta gizarte-transferentzien aurreko pobrezia larriaren tasaren bilakaera¹. Euskadi 2019-2023.



Iturria: INE. Bizi Baldintzei buruzko inkesta (BBI), 2019-2023.

Oharra: errenten banaketa primarioaren ondoriozko pobrezia-tasak islatzen dituzte, gizarte-prestazioak zenbatu gabe (pentsioak izan ezik).

² Definizioz gizarte-transferentziak diren arren, analisi mota horren ondorioetarako, pentsioak errenta primarioaren zati gisa sailkatu ohi dira.

³ Diru-sarrera txikiko tasa, pobrezia-arriskukoa ere esaten zaiona, pertsonen kontsumo-unitate bakoitzeko batez besteko errenta balio-kidearen %60tik beherako errenta garbi baliokidea duten etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa da. Pobrezia larriaren tasak, bestalde, errenta garbi baliokidea pertsonen kontsumo-unitate bakoitzeko batez besteko errenta baliokidearen %40 baino txikiagoa duten etxeko unitateetan bizi diren biztanleen ehunekoa adierazten du.

⁴ Emaitza horiek interpretatzeko, garrantzitsua da kontuan hartzea Bizi Baldintzen Inkestak (BBI) inkesta egin aurreko urteko diru-sarrerak hartzen dituela erreferentziazat.

- **Espero den emaitza 4:** *Pobreziaren, bazterketaren eta desberdinkeriaren tasak murriztea: pobreziaren, desberdinkeriaren eta bazterketaren adierazleen hazkunderako joera lehengoratuko da euskal biztanleria osoarentzat.*
- **Espero den emaitza 5:** *Gabezia materialaren mailak murriztea edo mantentzea, gaur egun historikoki maila baxuetan: metatze-pobreziaren eta/edo gabezia materialaren tasak ez dira handituko.*

Eskubide Sozialen Europako Zutabearen Ekintza Planak hiru helburu nagusi ezartzen ditu EB osorako 2030erako, eta horietako bat da pobrezia- eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen kopurua murriztea⁵. Betetze-maila neurtzeko, AROPE adierazlea (*at risk of poverty or social exclusion*) erabiltzea proposatzen da, gutxienez honako egoera hauetako batean dagoen biztanleriaren ehunekoa adierazten duena: a) Pobrezia-arriskua, b) Gabezia material eta sozial larria, c) Lan-intentsitate txikiko etxeetan bizitzea.

Adierazle horren arabera, 2024an, Euskadin **pobreziako eta gizarte-bazterketako arriskuan dagoen biztanleriaren ehunekoa %14,8koa** izan zen, hau da, **ehuneko 0,8 puntu murriztu zen 2023ko tasarekiko**. Adierazlearen hiru osagaiei dagokienez, erregistratutako eboluzioa aldakorra da.

Pobrezia-arriskuaren edo diru-sarrera txikien tasak hazkunde nabarmena izan du, eta ehuneko 1,2 puntutan gainditu du 2023ko tasa. Nolanahi ere, %18,4ko mailarekin, 2019-2024 aldirako erregistratutako bigarren baliorik txikiena da. Aldiz, **gabezia material eta sozial larrien eta lan-intentsitate baxuko gabezien tasak jaitsi egin dira**. Lehenengoak ehuneko puntu 1 egin du behera 2023ko balioarekin alderatuta —handiena 2019-2024 serie historikoan—, eta bigarrenak, berriz, 0,7 puntu.

2. Taula. Pobreziaren, bazterketaren eta desberdinkeriaren adierazle nagusien bilakaera. Euskadi, 2019-2023								
	2019	2020	2021	2022	2023	2024	Eboluzioa 23-24	
Pobrezia edo diru-sarbide baxuen arriskua ¹	%20,5	%19,3	%20,3	%20,1	%17,2	%18,4	▲	+1,2 e.p.
Pobrezia larria ¹	%9,2	%8,5	%9,4	%9,3	%7,7	%7,4	▼	-0,3 e.p.
Gabezia material eta sozial larria	%4,0	%3,3	%4,6	%3,7	%5,6	%4,6	▼	-1,0 e.p.
Lan-intentsitate baxua	%10,0	%7,9	%7,5	%6,3	%7,6	%6,9	▼	-0,7 e.p.
Pobrezia- eta bazterketa-arriskua (AROE) ¹	%15,0	%13,6	%16,0	%15,7	%15,5	%14,8	▼	-0,8 e.p.
Gini koefizientea	29,4	28,8	29,3	29,4	30,1	29,1	▼	-1,1 e.p.
S80/S20	5,3	4,8	5,0	5,0	5,0	4,7	▼	-0,3 e.p.
Diru-sarrera pobreenen %10ekoaren ehunekoa	%2,3	%2,6	%2,6	%2,7	%2,6	%2,8	▲	+0,2 e.p.
Iturria: INE. Bizi Baldintzei buruzko inkesta (BBI), 2019-2023. Oharrak: (1) pobreziako eta pobrezia larriko arrisku-tasa autonomia-erkidegoen atalaseekin kalkulatzeko da. (2) Gutxienez egoera hauetako batek eragindako proportzioa da: 1) Diru-sarrera baxuak edo pobrezia-arriskua; 2) Gabezia material eta sozial larria (gabezia, gutxienez 4 kontzeptutan, 9ko zerrenda batean); 3) Lan-intentsitate baxua (0-59 urteko pertsonak, % 20tik beherako lan-intentsitatea duten etxeko unitateetan).								

⁵ Hamarkada honen amaierarako lortu nahi diren helburuak honako hauek dira:

- Enplegua: 20 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren %78k gutxienez lana izan behar du.
- Gaitasunak: helduen %60k, gutxienez, prestakuntza-jardueretan parte hartu behar du urtero..
- Gizarte-babesa: pobreziako edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonen kopurua gutxienez 15 milioi murriztu behar da.

Diru-sarreraren desberdinkeriarekin lotutako adierazleei dagokienez, **bilakaera positiboa izan da**. Izan ere, horietako batzuek 2019-2024 aldirako desberdintasun-maila txikiak erregistratu zituzten 2024an: **S80/S20 adierazlea**, %20 aberatsenaren eta %20 pobreenaren diru-sarreraren arteko erlazioa neurtzen duena, 4,7koa izan zen —2023an 5,0koa izan zen—, eta **errenta txikiena duen biztanleriaren % 10ek jasotako diru-sarreraren proportzioa % 2,8ra igo zen** —%2,6ra 2023an—.

Gini-ren koefizientea (29,1) aztertutako aldiko minimora iritsi ez bazen ere, azken urtean 1,1 puntu murriztu da, eta aldeko dinamika horren sendotasuna berresten du.

- **Espero den emaitza 6:** *Pobreziaren arrakalak murriztea: gaur egun pobreziaren, langabeziaren eta bazterketaren tasei dagokienez dauden aldeak murriztuko dira adinaren, sexuaren, jatorriaren, desgaitasunaren eta bizilekuaren ikuspegitik.*

3. Taulan aurkezten diren datuek agerian uzten dute pobreziako eta gizarte-bazterketako egoerek neurritz kanpoko eragina izaten jarraitzen dutela zenbait talde soziodemografikotan. **Adinean, nazionalitatean eta jatorrizko herrialdean bereziki nabarmenak diren aldeak ikusten dira; gainera, azken aldi handitu egin dira.**

Pobreziako eta gizarte-bazterketako egoeren bilakaeraren azterketak —AROE tasaren bidez neurtua⁶—, talde soziodemografikoen arabera, ondoko emaitza hauek ematen ditu:

- **Sexua.** 2023tik 2024ra bitartean, emakumeen AROPE tasa ehuneko puntu 1 murriztu da, eta gizonena 0,5 puntu. Ondorioz, sexuen arteko aldea apur bat estutu da (-%2,4). Denbora-ikuspegi zabalago batetik, emaitza horiek bi sexuen arteko konbergentzia-joera berresten dute: 2019tik, arrakala %20,9 murriztu da.
- **Adina.** Aztertutako talde soziodemografikoen multzotik, 0-17 urteko biztanleria da AROPE tasan hazkundea izan duen bakarra: 2023tik 2024ra bitartean, tasa hori 2,1 ehuneko-puntutan igo da, 18-64 urteko eta 65 urte eta gehiagoko biztanleen artean erregistratutako 1,6 eta 0,3 puntuko beherakaden aurrean, hurrenez hurren.

Horren ondorioz, adingabeen eta 65 urtetik gorakoen arteko aldea nabarmen murriztu da (+%16,7): 2024an, lehenengoen AROPE tasa 3,2 aldiz handiagoa izan zen —%20,8 eta %6,6—. Aitzitik, 18-64 urteko eta 65 urteko eta hortik gorako biztanleen arteko aldea %4,0 murriztu zen, eta kasu horretan tasa 2,5 aldiz handiagoa izan zen.

- **Jaioterrria.** Hala ere, AROPE tasak behera egin du bai Espainian jaiotako biztanleentzat (-1,7 e.p.) bai atzerrian jaiotakoen tasa bezala (-8,7 e.p.), bi taldeen arteko aldea antzekoa da. 2024ari dagokion datuak erakusten du prebalentzia 4,79 aldiz handiagoa dela atzerrian jaiotako biztanleentzat —4,84 aldiz, aldiz, 2023an—.

Nolanahi ere, joera oso desberdinak ikusten dira atzerriar jatorriko biztanleen artean, jaioterriaren arabera. Oro har, EBko herrialderen batean jaiotako biztanleriak murrizketa oso esanguratsua izan du AROPE tasan (-17,4 e.p.), eta horrek arrakala estutzea ekarri du Espainian jaiotako biztanleriaren aldean, %34,4. Aitzitik, arlo Komunitariotik kanpoko biztanleen kasuan, AROPE tasa murriztu bada ere (6,8 e.p.), Espainiako biztanleriarekiko arrakala %3,9 handitu da⁷.

- **Ezgaitasuna.** Ezgaitasunarekin lotutako pobreziako eta gizarte-bazterketako arriskuari dagokionez, arrakala egonkor mantendu da 2023tik 2024ra bitartean. Ildo horretan, azpimarratu behar da arazo horren prebalentzia murriztu egin dela ezgaitasun-egoeran dauden biztanleen artean (-0,8 e.p.) edo ezgaitasunik ez duen biztanleriaren artean (-0,5).

⁶ Gutxienez honako egoera hauetako batek eragindako proportzioa da: 1) Diru-sarrera txikiak edo pobrezia-arrisku txikia; 2) Gabezia material eta sozial larria (gutxienez 4 kontzepturen gabezia 9ren zerrendan); 3) Lan-intentsitate txikia (0-59 urteko pertsonak % 20tik beherako lan-intentsitatea duten etxekoek unitateetan).

⁷ Nabardurekin bada ere, nazionalitatearen arabera AROPE tasaren arrakalak, oro har, antzeko patroia erakusten dute.

3. Taula. Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren Arriskuaren (AROPE) tasaren arrailaren bilakaera, sexuaren, adinaren, jaiotza-herrialdearen, nazionalitatearen eta desgaitasun-egoeraren arabera. Euskadi, 2019-2023

		2019		2023		2024		2023-24 eboluzioa		
		Tasa (%)	arraila	Tasa (%)	arraila	Tasa (%)	arraila	Tasa (e.p.)	arraila (%)	
Sexua.	Emakumeak	17,2	1,36	16,3	1,10	15,3	1,08	▼	-1,0	▼ -2,3
	Gizonak	12,6	-	14,8	-	14,2	-	▼	-0,5	- -
Adina.	0-17 urte	19,0	2,58	18,8	2,72	20,8	3,18	▲	+2,1	▲ +16,7
	18-64 urte	16,9	2,28	18,0	2,61	16,4	2,50	▼	-1,6	▼ -4,0
	65 eta urte gehiago	7,4	-	6,9	-	6,6	-	▼	-0,3	- -
Jaiotzeria ²	Espainia	11,8	-	10,8	-	9,1	-	▼	-1,7	- -
	Atzerria	43,9	3,73	52,5	4,84	43,8	4,79	▼	-8,7	▼ -1,1
	EB	35,6	3,02	39,0	3,60	21,6	2,36	▼	-17,4	▼ -34,4
	Besteak	46,8	3,97	55,0	5,07	48,2	5,27	▼	-6,8	▲ +3,9
Nazionalitatea ²	Espainiarra	12,7	-	12,6	-	10,6	-	▼	-2,1	- -
	Atzerritarra	47,6	3,76	52,5	4,16	45,7	4,32	▼	-6,8	▲ +3,8
	EB	38,0	3,00	46,9	3,71	24,8	2,34	▼	-22,1	▼ -58,4
	Besteak	51,6	4,07	53,8	4,26	51,4	4,86	▼	-2,4	▲ +12,4
Ezgaitasuna ³	Mugaren bat	18,8	1,43	20,5	1,61	19,7	1,61	▼	-0,8	= 0,0
	Mugarik gabea	13,2	-	12,7	-	12,3	-	▼	-0,5	- -

Iturria: INE. Bizi Baldintzei buruzko inkesta (BBI), 2019-2023.

Oharrak:

(1) Arraila honela definitzen da: adierazle honetan eragin txikiena duen biztanleria-taldearen AROPE tasa. Bestela esanda, kontuan hartutako ezaugarri soziodemografiko bakoitzerako, tasarik txikiak (urдинez identifikatuak) erregistratzen dituen hartzen da erreferentzia taldeak. Jarraian, talde soziodemografiko bakoitzerako arrakala kalkulatu da, AROPE tasa erreferentziako taldearekin zatituta. Adierazle horrek adierazten du, oro har, zenbat aldiz handiagoa den pobrezia- eta bazterkeria-arriskua talde jakin batean, erreferentziako taldearekin alderatuta, eta desberdinkeria neurri bat ematen du, kalte beratasunari dagokionez.


(2) 2020ko ediziora arte, jaiotza-herrialdeari eta nazionalitateari buruzko informazioa 16 urteko eta gehiagoko etxeko unitateko kideentzat soilik jasotzen zen. 2019-2023 aldirako bilakaera-ikuspegia emateko, 2021eko eta 2023ko adierazleak biztanleria-talde berari lotuta ere egin dira.

(3) Adierazleak PH030 aldagaiari dagozkion emaitzak islatzen ditu, honako galdera honen erantzunean oinarrituta: *Gutxienez azken 6 hilabeteetan, zein neurritan mugatu da, osasun-arazo baten ondorioz, jendeak egin ohi dituen jarduerak egiteko?* Hiru erantzun posible aurreikusten dira: 1) Larriki mugatua; 2) Mugatua, baina ez larria; 3) Batere mugatua ez. Garrantzitsua da aipatzea, halaber, informazioa 16 urte edo gehiagoko pertsonentzat bakarrik jasotzen dela.

- **Espero den emaitza 7: Lurralde-konbergentzia: errenta pertsonalaren maila altuena duten lurralde-eremuen (hiru hiriburuetakako udalerriak eta auzoak) %20aren eta errenta-maila txikiena dutenen %20aren arteko aldeak murriztuko dira.**

2022tik 2023ra, errenta txikiena duten udalerrien %20rako batez besteko errenta pertsonal erabilgarriaren batez bestekoa %6,8 igo da, eta errenta handiena duten udalerrien %20koa, berriz, %3,6. 2022rako bi eremu geografikoen batez bestekoen arteko ratioan izandako gorakadaren ondoren, azken bilakaerak bere balioa 2018-2021 aldian behatutakoen maila baliokideetara itzultzen du. Horrela, eskuragarri dagoen azken datuaren arabera, **errenta handiena duten udalerrien % 20k batez besteko errenta du, errenta txikiena duten udalerrien %20k baino 1,59 aldiz handiagoa.**

2. Grafikoa. Batez besteko errenta pertsonal erabilgarriaren batez bestekoaren bilakaera errenta handiena eta txikiena duten udalerrien %20an. Euskadi, 2018-2022



Iturria: Eustat. Pertsonen eta Familien Errentaren Estatistika.
Oharra: hiru hiriburu kasuan, datuak auzoka banatzen dira.

- **Espero den emaitza 22.** *Pobrezia energetikoa prebenitzea: pobrezia energetikoko egoerak bizi dituzten biztanleen ehunekoa murriztuko da*

2019-2024 Pobrezia Energetikoaren aurkako Estrategia Nazionalak (EEEE)⁸, estatu-eremukoak, Europako Batzordearen⁹ eta Pobrezia Energetikoaren Europako Behatokiaren (EPOV)¹⁰ gomendioei jarraituz, erreferentziatzeko lau adierazle ezartzen ditu, eta adierazle horiek batera hartu behar dira kontuan arazo hori aztertzerakoan:

- *Energia-gastu neurrigabea (2M):* energian gehiegizko gastua egiten duten etxeko unitateen (eta pertsonen) ehunekoa neurtzen du. Diru-sarrerei dagokienez, erreferentziako lurralde bateko etxeko unitateetan erregistratutako batez bestekoaren bikoitza gainditzen duten energia-gastuak identifikatzen ditu.
- *Ezohiko energia-gastu txikia (M/2):* energian ezohiko gastu txikia egiten duten etxeko unitateen (eta pertsonen) ehunekoa neurtzen du. Erreferentziako lurralde bateko etxeko unitateetarako erregistratutako batez bestekoaren erdia baino txikiagoa den energia-gastu absolutuaren kasuak identifikatzen ditu.
- *Etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko ezintasuna:* neguko hilabeteetan etxebizitza tenperatura egokian mantendu ezin dutela adierazten duten familien (eta pertsonen) ehunekoa neurtzen du.
- *Atzerapena etxebizitzaren horniduren fakturen ordainketan:* azken 12 hilabeteetan gutxienez behin uraren, gasaren, berokuntzaren, elektrizitatearen eta abarren ordainketetan atzerapenak izan dituztela adierazi duten familien (eta pertsonen) ehunekoa neurtzen du.

Garrantzitsua da kontuan hartzea energia-gastuarekin lotutako adierazleak —2M eta M/2— INEk urtero argitaratzen duen Etxeko Aurrekontuen Inkestatik datozela. Hala ere, 2024ko edizioak badu berezitasun bat, adierazle horien azken aldiko bilakaera tentuz interpretatzera behartzen duena. Zehazki, diru-sarrerei buruzko datuak inkestatutako etxeko unitateen zati txiki batentzat baino ez daude eskuragarri, eta horrek esan nahi du bi adierazle horien 2024ko emaitzak ezin direla guztiz alderatu aurreko urteetakoekin.

Horrenbestez, EAEko biztanleen artean pobrezia energetikoaren prebalentziaren azken bilakaerari buruzko azterketa honako adierazle hauetara mugatzen da: *Etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko ezintasuna eta Etxebizitzaren horniduren fakturen ordainketaren atzerapenak*.

Alde batetik, emaitzek erakusten dute **etxebizitza tenperatura egokian mantendu ezin dutela adierazten duten etxeko unitateetan bizi diren biztanleen ehunekoa igotzen dela %11,5etik %12,0ra 2023tik 2024ra bitartean**. Termino absolutuetan, hazkunde horrek 16.000 pertsona gehiago izatea esan nahi du, gutxi gorabehera, arazo hori pairatuko luketenak.

Aldiz, etxebizitzako horniduren **fakturen ordainketan atzerapenak izan dituztela adierazten duten etxeko unitateetan bizi diren biztanleen ehunekoa nabarmen murriztu da** aldi horretan, %7,5etik %4,5era jaitsi baita. Hobekuntza horrek esan nahi du arazo horren eraginpeko 60.000 pertsona inguru gutxiago daudela aurreko urtearekin alderatuta.

⁸ Trantsizio Ekologikorako Ministerioa (2019). Pobrezia Energetikoaren aurkako Estrategia Nazionala 2019-2024.

⁹ Europako Batzordea (2020). 2020/1563 (EB) Gomendioa, Batzordearena, 2020ko urriaren 14koa, pobrezia energetikoari buruzkoa.

¹⁰ Thema, J., and Vondung, F. (2020) EPOV Indicator Dashboard: Methodology Guidebook. Wuppertal Institut für Klima, Umwelt, Energie GmbH.

4. Taula Pobrezia energetikoko egoerak bizi dituzten biztanleak, 2019-2024 Pobrezia Energetikoaren aurkako Estatuko Estrategiak (EEEE) ezarritako lehen mailako adierazleen arabera. Euskadi, 2019-2024

	Tasa (%)						Zkia.					
	2019	2020	2021	2022	2023	2024 ²	2019	2020	2021	2022	2023	2024 ²
Energia-gastu neurriga-bea (2M)	12,55	13,01	12,36	14,81	14,03	10,64	270.712	272.452	260.541	313.076	304.625	84.957
Ezohiko energia-gastu txikia (M/2)	7,39	7,41	7,02	8,57	9,26	11,25	143.283	148.796	142.158	177.385	193.888	52.957
Etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko ezintasuna	5,37	7,62	7,16	9,35	11,50	11,96	115.712	165.100	154.406	200.649	248.074	264.070
Etxebizitzaren hornidu-ren fakturen ordainketa atzeratzea	7,30	5,16	5,95	4,11	7,40	4,48	157.320	111.914	128.337	88.266	159.705	98.845

Iturriak: (1) INE. Bizi Baldintzei buruzko inkesta (BBI), 2019-2023. (2) INE. Etxeko Aurrekontuen Inkesta (EPF)

Oharrak: (1) Adierazleak kalkulatzeko, *Espainiako 2024ko Pobrezia Energetikoaren Adierazleen Txostenean* (Romero Mora et al., 2025) erabiltzen den metodologia erabili da. (2) EPFren 2024ko edizioan, diru-sarrereri buruzko datuak inkestatutako etxekoek unitateen zati txiki batentzat baino ez daude eskuragarri.

2.2.2. Enplegua


- Espero den emaitza 8: Langabeziaren murrizketa: emakumeen eta gizonen langabezia-tasak murriztuko dira, batez ere iraupen luzeko langabeziari lotutakoak.

2024ko hirugarren hiruhilekotik 2025eko hirugarren hiruhilekora bitartean, langabeziari buruzko datuek erakusten dute sexuen arabera portaera desberdina izan dela. **Emakumeen kasuan, langabezia-tasa ehuneko 1,9 puntu igo da, eta %8,1era iritsi da.** Hala ere, denbora-ikuspegi zabalago batetik, nabarmendu behar da 2019-2025 aldirako hirugarren hiruhilekoan erregistratutako bigarren baliorik txikiena dela.

Aitzitik, **gizonezkoen langabezia-tasa oso nabarmen murriztu da 2024ko 3. hiruhilekoaren eta 2025ekoaren artean, portzentajezko 3 punturen baliokidea** —% 8,8tik % 5,9ra igaro da—. Kasu horretan, agerian utzi behar da 2019-2025 aldian erregistratutako baliorik txikiena dela.

Iraupen luzeko langabezia-tasari dagokionez, dinamika antzekoa ikusten da sexuaren arabera 2024ko hirugarren hiruhilekotik 2025era bitartean: **emakumeei dagokien tasa ehuneko 0,6 puntu igo da, %2,3an kokatuz; gizonena, berriz, 1,8 puntu murriztu da, %1,4ra jaitsiz.** Bi kasuetan, erregistratutako balioak nahiko baxuak dira denborazko konparazioa 2019-2025 aldi osora zabalitzen bada.

3. Grafikoa. Langabezia-tasaren eta iraupen luzeko langabezia-tasaren hiruhilekoko bilakaera, sexuaren arabera. Euskadi, T1 2019 – T3 2025.



Iturria: INE. Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI)

Oharra: datu-etiketek 2024ko T3 eta 2025eko T3 balioak erakusten dituzte.

- **Espero den emaitza 9.** *Soldata-arrakalaren aurka jardutea: emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala murriztuko da.*

Generoko soldata-arrakala aztertzerakoan, garrantzitsua da kontuan hartzea gizonen eta emakumeen arteko soldata-aldeak eragiten dituzten faktoreen multzo konplexu bat dagoela, eta, askotan, elkarrekin lotuta dagoela. Lan-gaitasunen balorazioari honako hauek gehitu behar zaizkio: lan-merkatuaren segregazioa, sektore ekonomiko desberdinetako gizon eta emakumeen ordezkartza desberdinarekin; emakumeen enplegu-eskaintzaren ezaugarriak, kasu askotan familia-bizitzarekin uztartzeak baldintzatuta; emakumeek lanaldi partzialeko lanean parte hartzea, haurrak eta mendeko helduak zaintzeko jardueretan aritzeagatik; eta ordainsariei buruz ezarritako mekanismoak. Ondorioz, hainbat faktore sozial, legal eta ekonomikok baldintzatzen dute soldata-arraila, eta lan berdinetatik berdinean ordaintzetik harago doan kontzeptua da.

Errealitate horrek izan duen bilakaera hurbiltzen saiatzeko, analisi honetan bi metrika desberdin erabiltzen dira: urteko irabaziaren mediana eta lan egindako ordu normal bakoitzeko batez besteko irabazia.

2022-2023 aldirako, bi neurriek adierazten dute **murrizketa oso esanguratsua gertatu dela generoko soldata-arrailan**. Bi sexuetako soldatek gora egin badute ere, emakumeen kasuan igoera hori erritmo handiagoan izan da. Nabarmendu behar da **lan egindako ordu arrunt bakoitzeko batez besteko irabaziarekiko arrakala %58,8 jaitsi dela** adierazitako aldian.

5. Taula. Soldata-arrailaren bilakaera, urteko irabaziaren medianaren eta lan egindako ordu arrunteko batez besteko irabaziaren arabera. Euskadi, 2019-2023

		2019	2020	2021	2022	2023	2022-23 ebo-luzioa
Urteko irabaziaren mediana	Emakumeak	22.498 €	23.566 €	24.317 €	24.912 €	26.873 €	+7,9%
	Gizonak	29.340 €	29.858 €	30.699 €	31.878 €	32.083 €	+0,6%
	Arraila	23,3%	21,1%	20,8%	21,9%	16,2%	-25,7%
Lan egindako ordu arrunt bakoitzeko batez besteko irabazia	Emakumeak	18,46 €	18,99 €	19,58 €	19,81 €	21,55 €	+8,8%
	Gizonak	20,40 €	20,72 €	21,12 €	21,72 €	22,36 €	+2,9%
	Arraila	9,5%	9,5%	8,3%	7,3%	3,6%	-%58,8

Iturria: INE. Soldata-egituraren inkesta.

Oharra: bi sexuen arteko irabazien aldeak gizonen irabaziarekiko duen ehunekoa adierazten du arrakalak.

- **Espero den emaitza 10.** *Laneratzea bultzatzea, gizarte-ekonomiaren eta kontrataziorako laguntza-programen bidez: laneratze enpresetan, enplegu-zentro berezietan eta enplegu lagunduko programetan kontratatutako pertsonen kopurua handituko da, bai eta kontrataziorako laguntza-programen onuradunen kopurua ere.*

Gizarte Ekonomiaren Estatistikako azken datuen arabera, **laneratze-enpresetako enpleguak hazkunde nabarmena izan du azken aldian**. Datu berrienak, 2022ari buruzkoak, adierazten du enpresa horien **urteko enplegu ordaindua**¹¹ ia 960 enplegura igo zela, hau da, % 17,1eko igoera 2020an erregistratutako mailarekin alderatuta, eta % 26,4koa 2018arekin alderatuta.

Enplegu Zentro Berezietako enplegu-bolumena nabarmen handiagoa da. Metrika beraren arabera, **10.345 enplegu izan ziren 2022an, 2020koa baino pixka bat baxuagoa** (-%2,6).

¹¹ Adierazten du zenbat lanaldi osoko enplegu diren establezimendu horietan urtebetez lan egindako ordu guztiak.

6. taula. Urteko ordaindutako enpleguaren bilakaera Laneratze Enpresetan eta Enplegu Zentro Berezietan. Euskadi, 2018-2022

	2018	2020	2022	2018-22 ebo- luzioa (%)	2020-22 ebo- luzioa (%)
Laneratze-enpresak	757	817	957	+%26,4	+%17,1
Enplegu Zentro Berezia	9.986	10.626	10.345	+%3,6	-%2,6

Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Estatistika Organo Berezia. Gizarte Ekonomiaren Estatistika.

- **Espero den emaitza 11.** *Soldatak igotzea: soldatapekoen hileko ordainsari garbia igoko da, batez ere lanbide-kategoria baxuetan, baita langile bakoitzeko batez besteko irabazia ere, batez ere beheko kuartilean.*

2022tik 2023ra bitartean, **soldaten banaketaren beheko aldeko soldatapekoen laneko diru-sarrerek batez bestekoa baino hazkunde handiagoa izan zuten**. Soldata-irabaziaren mediana %4,6 igo zen, lehen dezilari¹² dagokion balioa %8,0 eta lehen kuartilari¹³ dagokiona %7,7.

Bilakaera horren ondorioz, lehen dezileko eta kuartileko soldata-irabazien mailak batez besteko balioarekiko %45,1 eta %68,4 izan ziren, hurrenez hurren, 2023an. 2019-2023 aldian erregistratutako ehunekorik handienak dira.

7. taula. Soldata-banaketaren 1. dezilari eta beheko kuartilari dagozkien soldata-irabazien bilakaera. Euskadi, 2019-2023

	2019	2020	2021	2022	2023	Eboluzioa 2022-23
Mediana	26.104 €	26.789 €	27.884 €	28.857 €	30.191 €	+%4,6
1. Dezila	10.754 €	11.578 €	12.481 €	12.609 €	13.616 €	+%8,0
% mediana	%41,20	%43,22	%44,76	%43,70	%45,10	+%3,2
1. Kuartila	17.686 €	18.460 €	19.001 €	19.177 €	20.646 €	+%7,7
% mediana	%67,75	%68,91	%68,14	%66,46	%68,39	+%2,9

Iturria: INE. Soldata-egituraren inkesta.

Oharra: Iaranzaz, 1. Dezileko eta 1. Kuartileko soldatek soldata-irabazien banaketaren medianarekiko duten ehunekoa erakusten da.

- **Espero den emaitza 12.** *Enpleguko pobrezia murriztea: lan-pobreziaren tasa murriztuko da, bai emakumeentzat, bai gizonentzat, baita DSBearen esparruan enplegurako pizgarrien sisteman sartzen diren soldata baxuko biztanleen ehunekoa ere.*

Eurostatek ezarritako definizioaren arabera, lan-pobreziaren tasa (*In-work at-risk-of-poverty rate*) pobrezia-arriskuan dauden langileen proportzioa da¹⁴. Hori kalkulatzeko, azken urtean gutxienez 7 hilabetez lan-jardueraren bat egin duten 18 urteko eta gehiagoko pertsonak bakarrik hartuko dira kontuan. Hainbat egilek adierazi duten bezala, definizio horrek lan-merkatuaren muinean jartzen du fokua: parte-hartze osoa izan arren, diru-sarrera nahikorik lortzen ez duten pertsonak. Metodologia horrek, beraz, analisitik kanpo uzten ditu lan-lotura ahulagoa duten pertsonak (Gómez-Álvarez Díaz & Gómez García, 2017)

¹² Biztanleria urteko soldata-irabazien arabera ordenatzen bada, eta, ondoren, dezimal izeneko tamaina bereko 10 taldetan banatzen bada, lehenengo dezila irabazi txikienak dituzten pertsonen osatuko lukete. Lehenengo dezilaren soldata-irabazirako adierazten den balioak eten-puntua adierazten du. Hau da, balio horretatik beherako irabaziak dituzten pertsonen osatzen dute talde hori.


¹³ Biztanleria urteko soldata-irabazien arabera ordenatzen bada, eta, ondoren, tamaina baliokideko 4 taldetan banatzen bada (kuartilak), 1. kuartila irabazi txikienak dituzten pertsonen osatuko lukete. 1. kuartilaren soldata-irabazirako adierazten den balioa eten-puntua da. Hau da, balio horretatik beherako irabaziak dituzten pertsonen osatzen dute talde hori.

¹⁴ Puntu horretan, garrantzitsua da agerian uztea pobrezia-egoera etxeko diru-sarreraren egoeraren arabera definitzen dela. Hau da, langilea pobrezia-arriskuan dagoela ulertuko da bere diru-sarrera baliokideak —etxeko unitatean neurtuta— etxeko unitate guztien diru-sarrearen medianaren %60 baino txikiagoak badira.

Azken emaitzen arabera, **lan-pobreziaren tasa egonkor mantendu da 2023tik 2024ra bitartean**. 2024rako, prebalentzia % 11,9an dago, aurreko urtetik oso hurbil (%11,7)¹⁵.

Bestalde, DSBEaren¹⁶ enplegurako pizgarrien titularren kopuruaren bilakaerak oso gorakada adierazgarria erakusten du 2024an. Urtean zehar zenbatutako pertsona titularren kopurua ia 5.000koa da, 2023ko guztizkoa baino handiagoa. Litekeena da, nolabait, hazkunde garrantzitsu hori DSBEren formulazio berria 2024ko urtarilaren 1etik aurrera indarrean sartzeak eragin izana¹⁷.

4. Grafikoa. Laneko pobrezia-arriskuaren tasaren eta DSBEaren enplegurako pizgarrien onuradun diren pertsonen (titularren) kopuruaren bilakaera urtean zehar. Euskadi, 2018-2023



Iturria: INE. Bizi Baldintzei buruzko inkesta (BBI), 2019-2023. Diru-sarrerak bermatzeko prestazioen onuradunen estatistika.

- **Espero den emaitza 13.** *Prekarietatea murriztea: nahi ez diren behin-behinekotasunaren eta partzialtasunaren adierazleak murriztuko dira enpleguan, bereziki gazteen eta emakumeen artean*

Oro har, eta aurreko aldian gertatu zen bezala, **aldi baterako kontratuen tasak behera egiten jarraitu du 2024ko hirugarren hiruhilekoaren eta 2025eko hirugarren hiruhilekoaren artean**. Murrizketa hala emakumeen artean —%22,0tik %21,1era igaro da— nola gizonen artean —%17,0tik %16,2ra—, nola 35 urte eta gehiagoko biztanleen artean —%13,8tik %12,3ra— gertatu da. Hala ere, behin-behinekotasunak gora egin du langile gazteenen artean (16-34 urte), eta dagokion tasa ehuneko 0,9 puntu igo da eta %37,2ra iritsi da.

Partzialtasun-tasak, bestalde, **gora egin du aipatutako talde guztietan**, proportzio desberdinean bada ere. Sexuen arabera, igoera handiagoa izan da portzentajezko puntuetan gizonen artean —0,7 puntu, emakumeen artean, berriz, 0,4 puntu—. Nolanahi ere, azpimarratu behar da emakumeen partzialtasun-tasak, %25,7koa, gizonezkoenaren oso gainetik jarraitzen duela, %9,2. Adin taldeen arabera, igoera nabarmenagoa


¹⁵ Lan-pobreziaren tasari dagozkion emaitzak interpretatzeko, kontuan izan behar da BBI*n* errentaren eta lan-egoeraren erreferentzia-aldia inkesta egin aurreko urtea dela.

¹⁶ Datuak urtean zehar titularrak ez diren pertsonen kopuruari egiten dio erreferentzia.

¹⁷ Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamenduari buruzko 173/2023 Dekretua indarrean sartzen den eguna da.

izan da gazteen artean —ehuneko 0,9 puntu—. Beraz, areagotu egin da 16-34 urteko (%25,8) eta 35 urte eta gehiagoko (%14,5) langileen arteko partzialtasun-tasaren alde handia.

5. Grafikoa. Partzialtasun- eta behin-behinekotasunaren tasaren hiruhileroko bilakaera. Euskadi, T1 2019- — T3 2025.



Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta.


- **Espero den emaitza 14.** *Enpleguan parte-hartzea handitzea: lan-intentsitate txikia duten etxekoen unitateetako biztanleriaren ehunekoa murriztea eta jarduera-tasak handitzea, bai gizonen kasuan, bai emakumeen kasuan*

2024an, lan-intentsitate txikiko etxekoen unitateetako biztanleria-tasa¹⁸ %6,9koa izan zen. Aurreko urteko datuarekin alderatuta, beherakada nabarmena izan da, adierazlea %7,6ra iritsi baitzen, gorakada nabarmena izan ondoren.

Jarduera-tasari dagokionez, **2023ko hirugarren hiruhilekoaren eta 2024ko hirugarren hiruhilekoaren artean** ikusitako bilakaera aldatu egiten da sexuaren arabera. **Emakumeen jarduera-tasa ehuneko 1,8 puntu igo da,** eta %52,8an kokatu da. **Gizonei dagokiena 0,5 puntu jaitsi da,** %58,7ra arte. Horrela, bi sexuen jarduera-tasen arteko alderik txikiena lortu da 2019-2025 aldirako¹⁹.

Hala eta guztiz ere, garrantzitsua da adieraztea, definitzen den moduagatik²⁰, adierazlearen bilakaerak eragin handiagoa izan dezakeela dinamika demografikoetan, enpleguan izandako parte-hartzean izandako aldaketetan baino.

6. Grafikoa. Lan-intentsitate txikiko etxekoen unitateetako biztanleria-tasaren (2019-2024) eta jarduera-tasaren (2019T1-2025T3) bilakaera. Euskadi.



Iturria: INE. Bizi Baldintzei buruzko inkesta (BBI), 2019-2023. Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI)

¹⁸ Adierazleak adierazten du 18 eta 64 urte bitarteko helduek (18-24 urte bitarteko ikasleak, erretiratuak edo erretiratuak eta 60-64 urte bitarteko pertsona ez-aktiboak izan ezik, horien diru-sarreraren iturri nagusia pentsioak baitira) beren lan konbinatuaren potentzial osoaren % 20 baino gutxiago lan egin zuten etxekoen unitateetan bizi diren 0-64 urte bitarteko biztanleen ehunekoa. Aldagai hori ez da aplikatzen 65 urte edo gehiagoko pertsonen kasuan.

¹⁹ 2025eko lehen hiruhilekoan bakarrik erregistratu da arrakala txikiagoa adierazitako aldi osoan.


²⁰ Jarduera-tasa aktiboen guztizkoaren eta 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren arteko zatidura da.

2.2.3. Etxebizitza eskuratzea

- **Espero den emaitza 15.** *Etxebizitzako gehiegizko gastua murriztea: errentaren %40 baino gehiago etxebizitza-gastuetara bideratu behar duen biztanleriaren ehunekoa murriztuko da.*

Eurostatek planteatzen duen definizioaren arabera²¹, 2024an, EAEko biztanleriaren %6,2 etxebizitzari lotutako gastuek errenta erabilgarriaren %40 gainditzen duten etxekoen unitateetan bizi da. Ehuneko hori 2023ari dagokion balioa (%5,9) baino zertxobait handiagoa da, baina 2019-2022 aldian erregistratutakoak baino txikiagoa edo konparagarria.

7. Grafikoa. Etxebizitzan gehiegizko gastua duen biztanleria-tasaren bilakaera.
Euskadi, 2019-2024



Iturria: INE. Bizi Baldintzei buruzko inkesta (BBI), 2019-2023.

- **Espero den emaitza 16.** *Bizitegi-bazterketa larria murriztea: bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen kopurua murriztuko da (pertsonak kalean, aterpetxeak eta egonaldi laburreko zentroak).*

Bizitegi-bazterketako egoera larrienei dagokienez, *EAE*n bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko VII. azterlanak 2024 aukera ematen du egoera horien azken aldiko bilakaera aztertzeko. **2022tik 2024ra bitartean, Euskadin bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen guztizko kopurua %79,6 igo da.** 2024ko zenbaketaren datuek agerian uzten dute **nabarmen hazi dela kalean bizi diren pertsonen kopurua:** 1.556 pertsona zenbatu ziren egoera horretan, **2022an baino ia 900 gehiago.** Hala ere, igoera hori tentuz interpretatu behar da, aldaketa metodologiko garrantzitsu baten ondorioz: 2024ko edizioan, lehen aldiz, sarbide zaileko gunetara joateko ardura zuten profesionalen laguntza izan zen. Aldaketa horri esker, ziurrenik, pertsona gehiago identifikatu ahal izan ziren, eta emaitza horiek aurreko urteetakoekin alderatzeko aukerari eragin zioten²².

Bestalde, **gaueko harrera-zentroetako pertsonen kopuruak ere gora egin zuen 2022tik 2024ra bitartean, baina nabarmen apalagoa izan zen:** guztira 558 pertsona zenbatu ziren, 2022an baino 39 gehiago (+%7,5).

²¹ Etxebizitzako gehiegizko gastuaren adierazleak (*Housing cost overburden rate*) ezartzen duenaren arabera, etxebizitzaren guztizko kostua (etxebizitza-subsidioak ostu ondoren) errenta erabilgarriaren %40 baino gehiago den etxekoen unitateetan bizi den biztanleriaren ehunekoa neurtzen du (etxebizitza-subsidioen garbia).

²² Bestela esanda, erregistratutako hazkundeak, neurri zehaztugabe batean, antzemateko gaitasun handiagoa izango luke.

8. Taula. Gaueko zenbaketetan identifikatutako bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen kopuruaren bilakaera. Euskadi, 2018-2024

	2018	2020	2022	2024	2020-2021 eboluzioa
Kalean ²	430	163	658	1.556	+898 (+%136,5)
Gaueko harrera-aterpetxeak ³	497	351	519	558	+39 (+%7,5)
COVID-19ko baliabide bereziak	-	846	-	-	-
Guztizkoa	927	1.360	1.177	2.114	+937 (+%79,6)


Iturria: EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko azterlan sorta. 2018, 2020, 2022 eta 2024. edizioak.
Oharra: (1) Parentesi artean bilakaera ehunekotan islatzen da. (2) Zentzu hertsian, kalean zeuden pertsonak eta bizitzeko egitura desegokietan zeudenak dira. (3) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Zorroari buruzko Dekretuan jasotako 1.8 (udalekoa) eta 2.3.2 (forukoa) zerbitzuekin pareka daitezke.

- **Espero den emaitza 17.** *Etxebizitza eskuratzeko prezioaren igoera geldiaraztea: merkatu librean alokairuko etxebizitzaren prezioa igotzeko erritmoa geldiaraziko da*

2024ko 2. hiruhilekoaren —2024ko jarraipen-txostenean jasotako azken datua— eta 2025eko 1. hiruhilekoaren artean, **merkatu libreko etxebizitzaren alokairuaren batez besteko prezioa % 2,2 igo zen Euskal Autonomia Erkidego osoan, eta 832 eurora iritsi zen. Gorakada hori hiru lurralde historikoetan ere ikusi zen, intentsitate desberdinarekin bada ere**²³.

Nolanahi ere, **2024ko 3. hiruhilekotik aurrera prezioek egonkor samar jarraitzen dute EAE osoan (-%0,4). Gehitutako emaitza horrek, nolanahi ere, lurralde historiko bakoitzeko ageriko aldeak ezkututzen ditu. Bizkaian eta Gipuzkoan prezioak %0,4 eta %0,9 jaitsi ziren, hurrenez hurren, baina Araban pixka bat igo ziren (+%0,3).**

8. Grafikoa. Ohiko etxebizitza kolektiboaren alokairu libreko kontratuen hileko batez besteko errentaren bilakaera, lurralde historikoen arabera. T1 2018- T1 2025.




Iturria: Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Estatistika Organo Berezia. Alokairu Merkatuaren estatistika.

Informazio gisa, hurrengo grafikoak alokairuaren batez besteko prezioaren bilakaera metatua erakusten du, batetik, eta KPlarena, bestetik. Bi metrikek 2024ko bigarren hiruhilekotik aurrera izan duten bilakaera aztertuta, ikusten da **alokairuaren prezioen igoerak (+%2,2) gainditu egiten duela aztertutako aldiari KPlan izandako igoera (+%1,2).**

²³ Batez besteko prezioa %2,9 igo zen Bizkaian (836€), %2,0 Gipuzkoan (859€) eta %1,5 Araban (751€).

9. Grafikoa. KPlaren eta Euskadiko alokairu-kontratuen hileko batez besteko errentaren hazkunde metatua, T1 2018- T1 2025.



Iturria: Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Estatistika Organo Berezia. Alokairu Merkatuaren estatistika. AME (2) INE. Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI).

- **Espero den emaitza 18.** *Etxegabetzeak prebenitzea: etxegabetzeen eta etxebizitza-kaleratzeen kopurua murriztuko da, bai jabetza-erregimenean, bai alokairuan.*

2024an, etxegabetzeen kopurua 2023koen parekoa izan zen —aurreko urteetan baino kopuru txikiagoa—, baina 2025erako eskuragarri zeuden datuek, osatu gabe egon arren, **oso hazkunde nabarmena** erakusten dute.


Azken aldiko bilakaera bereziki kezagarria da, **2025eko hirugarren hiruhilekoan 713 etxegabetze metatu baitziren, 2024 osoan baino 143 gehiago**. Ildo horretan, aipatu behar da 37/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez onartutako etxegabetze-prozedurak eteteko ezohiko neurriak 2025 osoan indarrean mantendu zirela²⁴.

Aurrekoa kontuan hartuta, litekeena da 1/2025 Lege Organikoak²⁵ errentamendu-kaleratzeen epaiketen izapidetzeari eta betearazpen-prozesuetako izapideteei dagokienez egindako aldaketek eragina izatea.

²⁴ 2025eko abenduaren 31ra arteko luzapena 1/2025 Errege Lege Dekretuaren bidez sartu zen.

²⁵ 1/2025 Lege Organikoa, urtarrilaren 2koa, Justizia Zerbitzu Publikoaren eraginkortasunaren arloko neurriei buruzkoa.

10. Grafikoa. Hipoteka-betearazpenagatik eta alokairua ez ordaintzeagatik egindako etxebizitza-kaleratzeen kopuruaren bilakaera. Euskadi, 2018-2025



Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia (BJKN). Krisiaren eragina organo judizialean.
Oharra: 2025eko datua lehen hiru hiruhilekoetako metatuari dagokio.

- **Espero den emaitza 19.** *Etxebizitzarako eskubide subjektiboa gauzatzea: sustapen publikoko alokairuko etxebizitzetan bizi diren pertsonen kopurua handituko da, baita etxebizitzako prestazio ekonomikoa jasotzen duten pertsonen kopurua ere.*

147/2023 Dekretuan ezarritakoaren arabera²⁶, Euskadin alokairu sozialeko etxebizitza bat lehentasunez eskuratuz edo etxebizitzako prestazio ekonomiko (EPE) baten bidez gauzatuko da.

Batez ere, adierazi behar da Euskadin sustapen publikoko alokairu-etxebizitzetan bizi diren pertsonen kopuruaren kuantifikazioa oztopatzen duela etxebizitza sozialen parkeari buruzko datuak sakabanatuak eta osatugabeak izateak. Gutxi gorabehera, alokairu sozialera bideratutako etxebizitzaren guztizko kopurua kontabilizatzen saiatu gara, bi iturritako informazioa erabiliz: Alokabideren kudeaketa-memoriak eta Eraikuntza eta Etxebizitza Estatistikak alokairu babestuko etxebizitzaren udal-parkeari buruz jasotzen dituen datuak.

Bildutako informazioaren arabera, **2023tik 2024ra etxebizitza sozialen parkea zertxobait murriztu da (-%0,5), eta 93 etxebizitza gutxiago erabili dira erabilera horretarako.** Erregistratutako bilakaera aldakorra da kontuan hartutako etxebizitza-motaren arabera: **Alokabideri (+152 etxebizitza) eta Eusko Jaurlaritzari (+267) dagozkien etxebizitzaren kopuruak gora egin duen heinean**, alokairuko udal-parkeak nabarmen egin du behera (-485).

²⁶ 147/2023 Dekretua, urriaren 10ekoa, etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzkoa.

9. Taula. Alokairu sozialera bideratutako etxebizitza-parkea, programaren/tipologiaren arabera. Euskadi, 2020-2024

	2020	2021	2022	2023	2024	2023-24 eboluzioa
<i>BIZIGUNE programa¹</i>	6.551	7.001	7.232	7.376	7.375	%0,0
<i>Alokabideren sustapenak²</i>	4.615	4.617	4.642	4.748	4.900	+%3,2
<i>Eusko Jaurlaritzaren sustapenak³</i>	3.493	3.711	3.823	3.890	4.157	+%6,9
<i>Alokairu Segurua Arrazoizko Prezioa — ASAP⁴</i>	94	94	96	111	101	-%23,2
<i>Udal-etxebizitzak⁵</i>	3.857	4.092	4.201	4.192	3.707	-%11,6
GUZTIZKOA	18.669	19.574	20.039	20.318	20.225	-%0,5

Iturria: Alokabide. 2020, 2021, 2022 eta 2023ko kudeaketa-memoriak. Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. Oharrak: (1) Hutsik dauden etxebizitzak alokairu babestuko merkatuan sartzea da helburua, jenderik gabe dauden etxebizitza horiei guztiei erabilera soziala emateko. (2) Alokabidek alokairu sozialera bideratutako etxebizitza-parkea da. (3) Alokairu sozialerako Eusko Jaurlaritzaren esku dagoen etxebizitza-parkeaz ari da. (4) Helburua da titulartasun pribatuko etxebizitza hutsak errentamendu-merkatuan sartzea, errentarientzat arrazoizko prezioan. (5) Babes ofizialeko etxebizitzak, etxebizitza sozialen, zuzkidura-bizitokiak eta bestelako babes-erregimeneko udal-jabetzak etxebizitzak errentatzen dituzten batura da.

Etxebizitza Eskubide Subjektiboa gauzatzeko bigarren bideari dagokionez, aipatu behar da 2024ko apirilaz gozotik Eusko Jaurlaritzak kudeatutako etxebizitza-prestazio guztiak —EPO eta EPE, zehazki— Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren²⁷ aterkipean eta Etxebizitza Eskubide Subjektiboari lotuta daudela.

2023tik 2024ra bitartean, %7,9ko murrizketa erregistratu zen indarrean zeuden etxebizitza-prestazio guztietan. Nolanahi ere, garrantzitsua da adieraztea **EPOaren kopurua murriztu egin zela —10.000 titular inguru gutxiago zenbatu ziren—, baina EPEaren titular guztiak 4,5 aldiz biderkatu zirela, 2.208tik 10.130era.**

Aldaketa horiek, neurri handi batean, etxebizitza Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren babes-eremutik bereizteko eta etxebizitza-politiken esparruan erabat integratzeko aginduari erantzuten diote. 14/2022 Legeak²⁸ ezartzen duenaren arabera, bi prestazioak aldi berean izateko araubide hori iragankorra da: EPOa behin betiko desagertzea 2025. urtearen²⁹ amaierarako aurreikusten da, eta titularrak EPEra igaro beharko dira.

10. Taula. Etxebizitza-prestazioen titularren kopurua abenduaren 31n. Euskadi, 2019-2024

	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2023-24 eboluzioa
<i>Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa (EPE)</i>	679	907	1.154	1.675	2.208	10.130	+%358,8
<i>Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO)</i>	24.479	25.868	24.975	23.527	25.489	15.373	-%39,7
GUZTIZKOA	25.158	26.775	26.129	25.202	27.697	25.503	-%7,9

Iturria: (1) Lanbide. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularrak, lurralde historikoen arabera, 2019-2025. (2) Etxebizitzaren Euskal Behatokia. Datuen eskaera espezifikoak.

²⁷ EPOa DSBeri lotzen zitzaion lehen.

²⁸ 14/2022 Legea, abenduaren 22koa, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari buruzkoa.

²⁹ 14/2022 Legearen bigarren xedapen iragankorra.

2.2.4. Harremanen integrazioa

- **Espero den emaitza 27.** *Bazterkeria-egoeran dauden pertsonen isolamendua prebenitzea eta haien arteko harremanak hobetzea: gizarte-arazo larriak dituzten pertsonen ehunekoa murriztuko da harreman pertsonaletan eta familiarretan, batez ere gabezia ekonomikoko egoeran dauden biztanleen artean.*

Oraindik argitaratzeke dauden 2024ko Gizarte Premiei buruzko Inkestaren emaitzekin —eragiketa estatistikoa, 2023ko jarraipen-txostenean erabilia—, iturri osagarri bat erabili da isolamendu-egoeren prebentzioari eta bazterketa-egoeran dauden pertsonen integrazio erlazionalaren hobekuntzari buruzko azken bilakaera baloratzeko: FOESSA Fundazioaren (EINFOESSA, aurrerantzean) Integrazioari eta Behar Sozialei buruzko Inkesta.

EINFOESSAren helburua biztanleriaren bizi-baldintzak eta gizarte-bazterkeria kuantifikatzea eta aztertzea da, eta, emaitzak oinarri hartuta, gizarte-bazterkeriako³⁰ neurri bat egiten da, 37 adierazleko sistema batean oinarrituta, 8 *dimentsiotan* multzokatuta eta funtsezko hiru *ardatz* lotuta: ardatz ekonomikoa, ardatz politikoa eta gizarte-harremanen ardatza. Azken ardatz horretatik ateratzen diren emaitzek —baita horien *dimentsioek* eta adierazleek ere— aukera ematen dute azken aldian aztertutako problematiken bilakaera identifikatzeko³¹.

Inkestaren emaitzen arabera, **EAEko biztanleen %6,9k gizarte-bazterkeriako arazoak ditu ardatz sozialean eta harreman-ardatzean**. Prebalentzia hori, konparatiboki, aurreko bi edizioetakoa baino baxuagoa da: 2018an %9,4 eta 2021ean %7,5.

Hala ere, harreman-ardatzaren dimentsioak bereizita aztertzen direnean eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak berariaz aintzat hartzen direnean, aurreko emaitzak ñabartzen dituzten alderdi garrantzitsuak identifikatzen dira.


11. Grafikoak erakusten duenez, **bazterkeria-arazoak murrizten dituen dimentsio bakarra gizarte-gatazkari buruzkoa da**. Eragindako biztanleriaren ehunekoa %5,8tik %2,2ra igo da 2018 eta 2024 artean. **Murrizketa hori bereziki nabarmena da gizarte-bazterkeriako egoeran dauden biztanleak berariaz kontuan hartzen badira**. Hala badagokio, arazo horiek gutzitzkoaren laurden bati baino gehiagori eragiten diete (%26,6), 10 pertsonatik bati baino gutxiagori (%9,2).

Aitzitik, **isolamendu-egoerekin lotutako arazoek gorakada txiki bat izan dute biztanleria osoan** —%3,7tik %5,1era igaro da —, **eta igoera hori bereziki nabarmena da bazterkeria-egoeran dauden pertsonen artean**. Zehazki, gizarte-isolamenduaren dimentsioan arazoak dituzten eta bazterketa-egoeran dauden pertsonen ehunekoa gainditu egin da, %0,8tik %11,2ra aztertutako aldian.

³⁰ *Gizarte Bazterkeriaren Indize Sintetikoa* esaten zaio.

³¹ Harreman-ardatza gatazka-egoeretan eta gizarte-isolamenduan oinarritzen da, eta horiek dira, aldi berean, hura osatzen duten bi *dimentsioak*. Lehenengoan, aurkako gizarte-egoerekin eta gizarte- edo familia-gatazkako beste egoera batzuekin lotutako adierazle batzuk biltzen dira. Bigarrenetan, berriaz, lotura eta babes sozialik ezari lotutako adierazleak daude.

11. Grafikoa. Gatazkan eta gizarte-isolamenduan gizarte-bazterkeriako arazoak dituzten biztanleen %-a



Iturria: EINFOESSA, 2019, 2021 eta 2024. edizioak.

- Espero den emaitza 28. Gutxiengo etnikoen eta etorkinen inklusio-sentimendua areagotzea: oso integratuta sentitzen diren etorkinen eta ijitoen ehunekoa handituko da.

2023ko Atzerriar Jatorriko Biztanleriaren Inkestaren emaitzek erakusten dutenez, atzerriar jatorriko biztanleriaren % 77,7 nahiko edo oso integratuta sentituko litzateke euskal gizartean. 2010-2023 aldian erregistratutako ehunekorik txikiena da, eta ehuneko 6,2ko murrizketa izan du aurreko datuarekin alderatuz gero, 2018koa.

Garrantzitsua da adieraztea nahiko edo oso integratuta sentitzen den biztanleriaren proportzioa nabarmen aldatzen dela jatorrizko eremu geografikoaren arabera. Ehunekorik handienak EBko beste herrialde batzuetako (%92,4) eta Latinoamerikako (%85,1) biztanleei dagozkie, eta txikienak, aldiz, afrikar jatorriko biztanleei: 10etik ia 4 ez lirateke batere integratuta sentituko euskal gizartean.

Aurrekoarekin lotuta, nabarmentzekoa da Magrebeko jatorrizko biztanleriaren integrazio-sentimenduaren beherakada bereziki nabarmena 2018 eta 2023 artean, % 79,3tik —atzerriko biztanleria osoaren maila konparagarria— % 64,1era jaitsi baita.

11. Taula Euskal gizartean nahiko edo oso integratuta sentitzen diren 18 urteko eta gehiagoko¹ atzerriar jatorriko biztanleak, jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010-2023.

	2010	2014	2018	2023	2018-23 eboluzioa
Guztizkoa	%80,8	%80,6	%83,9	%77,7	-6,2 e.p.
Europar Batasuna ²	%86,8	%80,3	%88,4	%92,4	+4,0 e.p.
Latinoamerika ³	%83,2	%88,5	%90,1	%85,1	-5,0 e.p.
Gainerako herrialdeak	%78,5	%67,5	%79,0	%73,4	-5,6 e.p.
Magreb	%76,8	%72,2	%79,3	%64,1	-15,2 e.p.
Afrikako gainerako herrialdeak ⁴	%68,3	%73,7	%71,0	%62,8	-8,2 pep.

Iturria: Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren estatistika-organo espezifikoa. Atzerriar Jatorriko Biztanleriaren Inkesta (AJBI).
Oharrak: (1) 2010, 2014 eta 2018ko edizioetarako, erreferentziazko biztanleria 16 urteko eta gehiagoko pertsonen dagokie. (2) AJBIren lurralde-multzotxo hauei dagokien batez bestekoa islatzen du: mendebaldeko EB, Errumania eta ekialdeko beste EB batzuk. (3) AJBIren lurralde-multzotxo hauei dagokien batez bestekoa islatzen du: Argentina-Txile-Uruguai, Kolonbia-Ekuador-Peru, Bolivia, Paraguai, Brasil-Venezuela-Dominikar Errepublikak, (4) AJBIren lurralde-talde hauei dagokien batez bestekoa islatzen du: Senegal, Afrikako gainerako herrialdeak.


2.2.5. Hezkuntza eta osasuna

- **Espero den emaitza 23.** *Lehen Haurtzaroan inbertitzea: haurrak eskolatzeko tasa handituko da, batez ere 1 eta 2 urte bitarteko haurren artean.*

Eustaten Eskola Jardueraren Estatistikako azken datuek erakusten dutenaren arabera, **urte bateko haurren eskolatzeko-tasa % 62,4koa izan zen 2023/2024 ikasturtean**. Aurreko ikasturtean erregistratutako tasarekin alderatuta ehuneko 5,1 puntu igo da, eta maximo historiko berria da. Izan ere, ondoz ondoko hirugarren ikasturtean lortu zen adin talde horretarako balio historiko handiena.

2 urteko ikasleen eskolatzeari dagokionez, datuek **%94,2ko tasa erakusten dute 2023/2024 ikasturterako**. Aurreko ikasturtearen aldean 0,7 puntu jaitsi bada ere, azken hamarkadakoen maila konparagarrietan jarraitzen du, baita handiagoetan ere.

12. Grafikoa. 1 eta 2 urteko haurren eskolatzeko-tasaren bilakaera.
Euskadi, 2013/2014-2023/2024 ikasturtea



Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika.

Oharra: eskolatzeko-tasa adin jakin bateko ikasleen kopurua adierazten duen ehunekoa da, adin horretako guztizko biztanleriarekiko.

- **Espero den emaitza 24:** *Hezkuntza-desberdintasuna prebenitzea: ISEK altua eta baxua duten ikastetxeen arteko aldea murriztuko da matematikarako gaitasunean lortutako puntuazioei dagokienez, eta DBHko 4. mailan eta Batxilergoko 2. mailan gaingidutako portzentajearen dauden aldeak murriztuko dira irakaskuntza-ereduaren arabera.*


Estatus sozioekonomikoa eta kulturala kontzeptu integrala da, eta beste prozedura batzuen bidez baino modu sistematikoagoan neurtzen du ikasleek zer sarbide duten familien kapital ekonomiko, sozial eta kulturean eta familiaren posizio sozialean edo ikaslearen etxean, PISA Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Nazioarteko Programaren esparruan. Estatus sozioekonomikoa eta kulturala berariazko indize sintetiko baten bidez neurtzen da, ISEKen bidez³².

2018ko eta 2022ko PISA ebaluazioen emaitzen arteko alderaketak agerian uzten du, gaitasun matematikoko batez besteko puntuazioan beherakada orokorra dagoen testuinguru batean, **ikastetxeen ezaugarri sozioekonomikoekin lotutako desberdintasunak bere horretan mantentzen direla**.

³² Hiru osagairen informazioa konbinatzen duen adierazle konposatu gisa definitzen da: (1) gurasoen hezkuntza-maila altuena; (2) gurasoen okupazio-estatus altuena; (3) etxeko jabetzak (aberastasunak).

- ISEK txikiena duten ikastetxeen %25eko ikasleek 450 puntuko batez besteko puntuazioa lortu zuten gaitasun matematikoan, ISEK handiena duten ikastetxeen %25eko ikasleek lortutako 519ko batez bestekoaren 69 puntu azpitik. Arrakala horren magnitudea irudikatzeko, adierazi behar da Japoniaren —gaitasun matematikoan batez besteko puntuaziorik handiena duen herrialdea (536 puntu)— eta Maltaren —28. postuan dago³⁴— arteko aldearen baliokidea dela.
- Emaitzak zailtasun sozioekonomikoak³⁵ dituzten etzekoen unitateetatik etorritako ikasleen proportzioaren arabera aztertzean, oraindik ere aldeak daude gaitasun matematikoko batez besteko puntuazioari dagokionez, baina ez dira hain nabarmenak. Ikasle kalteberen ehuneko handiena duten ikastetxeetako %25etik datozen ikasleen batez besteko puntuazioaren arteko aldea 45 puntu txikiagoa da ehuneko txikiena duten % 25eko ikasleena baino.

13. Grafikoa. Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen matematikako konpetentzian (PISA) lortutako batez besteko puntuazioa, ikastetxeen ezaugarri sozioekonomikoen arabera. 2018-2022.



Iturria: Lanketa propioa, 2018ko eta 2022ko PISA Ikasleen Nazioarteko Ebaluazio Programako mikrodatuak oinarri hartuta.

Irakaskuntza-erduetan gaingituen ehunekoarekin lotutako hezkuntza-desberdintasunei dagokienez, datu berriek ez dute aldaketa esanguratsurik erakusten azken aldian.

Illo horretan, **gaingituen proportziorik handiena D erduan ikusten da oraindik ere. Aldea bereziki nabarmena da DBHko 4. mailan:** D erduan %77,7koa da, B eta A erduetan %72,8ra eta %64,0ra jaisten da, hurrenez hurren. Aitzitik, alde hori portzentajezko 4 puntutik behera dago batxilergoko 2. mailan.

³³ Garrantzitsua da kontuan hartzea ISEKek banakako estatus sozioekonomikoa eta kulturala neurtzen duela. Ikastetxearen mailan indizearen balioa hurbiltzen saiatzeko, inkestan parte hartzen duten ikasleen ISEKaren batez bestekoa hartu da erreferentziazat.

³⁴ 2022ko edizioan 42 herrialdek hartu zuten parte. Gaitasun matematikoko batez besteko puntuazioari dagokionez, Espainia 23. postuan dago.

³⁵ Garrantzitsua da adieraztea egoitzei zuzendutako galdetegiak zuzenean jasotzen duela datu hori.

12. Taula. DBHko 4. mailan eta batxilergoko 2. mailan gainditu dutenen ehunekoaren bilakaera, irakaskuntza-ereduaren arabera. Euskadi, 2018/2019 eta 2022/2023 ikasturteak.

		2018/2019	2019/2020	2020/2021	2021/2022	2022/2023
DBHko 4. Maila						
<i>Gainditutakoen %</i>	<i>A eredu</i>	65,2	76,3	68,8	64,7	64,0
	<i>B eredu</i>	74,1	83,4	75,2	73,4	72,8
	<i>D eredu</i>	78,4	86,7	79,7	77,4	77,7
<i>D ereduaren aldea</i>	<i>A eredu</i>	0,83	0,88	0,86	0,84	0,82
	<i>B eredu</i>	0,95	0,96	0,94	0,95	0,94
Batxilergoko 2. Maila						
<i>Gainditutakoen %</i>	<i>A eredu</i>	90,1	95,6	92,0	87,0	87,6
	<i>B eredu</i>	89,6	94,8	93,3	83,6	85,0
	<i>D eredu</i>	92,3	95,1	94,3	89,4	88,8
<i>D ereduaren aldea</i>	<i>A eredu</i>	0,98	1,01	0,98	0,97	0,99
	<i>B eredu</i>	0,97	1,00	0,99	0,94	0,96

Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika.

Oharra: aldeak D ereduarekiko kalkulatu dira


2.2.6. Herritarren parte-hartzea, ekitatea eta diskriminaziorik eza

- **Espero den emaitza 32:** *Garraio-sare publikoaren erabilera erraztea: garraio kolektiboaren garrantzia handituko da, mugikortasun osoari dagokionez*

Garraio kolektiboko sare publikoak mugikortasun osoarekiko duen pisuari buruzko daturik eman ezin izan bada ere, **garraibide kolektibo desberdinen erabilerrari buruz eskuragarri dagoen informazioak iradokitzen du garraibide horiek COVID-19aren pandemiaren aurreko urteetan erregistratutako mailak berreskuratu edo gainditu dituztela.**

Esate baterako, INEren *Bidaiarien Garraioari buruzko Estatistikaren* datuen arabera, **autobus bidezko hiri-garraio erregularrerako**, 2024an, 93,2 milioi bidaiarirekin, 2019an baino 91,0 milioi gehiago izan ziren. Gainera, **igoera handia izan da 2025erako: abenduko datuak zenbatu gabe ere, garraiatutako bidaiarien urteko metatua 96,7 milioikoa da, aurreko urtekoa baino 3 milioi gehiago**. Ikuspegi osagarri batetik, datu horiek Euskadin bizi den biztanleriaren bilakaerarekin alderatzen badira, neurri handi batean, aurreko emaitzak berresten dira.

14. Grafikoa. Autobus bidez hiri-garraio erregularrean garraiatutako bidaiarien kopurua. Milaka bidaiari eta biztanleko bidaiariak. Euskadi, 2016-2025



Iturria: (1) INE. Bidaiarien Garraioaren Estatistika. (2) INE. Biztanleriaren Etengabeko Estatistika.
Oharra: 2025eko datuek azarora arte garraiatutako bidaiarien batura islatzen dute.

Autobus bidezko hiri-garraio erregularrak ez bezala, ez dago beste garraiobide publiko kolektibo batzuen bilakaera aztertzeko iturri sistematikorik. Nolanahi ere, bildu ahal izan diren datuen arabera, nahiz eta isolatuta eta sakabanatuta egon, azken urteetan garraiatutako bidaiarien kopuruak nabarmen egin du gora, lehenik eta behin 2020 baino lehen erregistratutako mailak berreskuratuz eta gero gaintituz.

Autobus bidezko hiriarteko garraiorako bidaiarien urteko kopuruari buruzko informazioak —Lurraldebusen, Bizkaibusen eta Arabako Foru Aldundiaren Mugikortasun eta Garraio Zuzendaritzaren kudeaketa-memoretatik ateratakoak— **bidaiari-kopuruaren hazkunde handia erakusten du**. 2024ko azken datuek erakusten dute, 2019arekin alderatuta, foru-sistemetan erregistratutako hazkundeak % 10etik gorakoak direla.

13. Taula. Euskadiko garraio publikoko hainbat sistema eta operadoretako urteko bidaiarien kopurua. 2019, 2022-2024.

	2019	2022	2023	2024	2019-2024 eboluzioa
Bidaiariak guztira					
<i>Lurraldebus</i> ¹	25.332.865	22.958.468	26.522.033	28.800.000	+13,7
<i>Bizkaibus</i> ²	29.280.081	26.667.414	29.900.238	34.477.878	+%17,8
<i>ALH Foru Garraioa (AlavaBus eta Eskualdeko Garraioa)</i> ³	330.700	337.960	427.659	591.092	+%78,7
<i>Euskotren</i>	41.167.036	39.453.000	47.921.879	53.995.283	+%31,2
<i>Metro Bilbao</i>	91.570.001	80.376.641	92.380.889	100.363.551	+%9,6

Iturria: Lurraldebusen, Bizkaibusen, AFaren Mugikortasun eta Garraio Zuzendaritzaren, Euskotrenen eta Metro Bilbaoren kudeaketa-memoriak.
Oharrak: (1) Gipuzkoako Foru Aldundiaren hiriarteko autobus garraio publikoaren zerbitzua da. (2) Bizkaiko Lurralde Historikoko autobus bidezko bidaiarien garraio publikoaren zerbitzua da. (3) Arabako Foru Aldundiaren hiriarteko autobus-garraio publikoko zerbitzuak dira.

Metro Bilbaoren kudeaketa-memoriak, bestalde, **2019 eta 2024 bitartean ia %10 igo da metroko bidaiari kopurua**. 2024an, lehen aldiz gainditu zen urteko 100 milioi bidaiarien muga.

Euskotrenen kasuan, bidaiarien kopurua ere nabarmen igo da. 2019arekin alderatuta, ia 13 milioi bidaiari gehiago erregistratu ziren 2024an, hau da, %30etik gorako hazkundera. Nolanahi ere, garrantzitsua da kontuan izatea garraiatutako bidaiari guztiak ez datozela bat trenarekin, erakundeak tranbia, funikular, metro eta autobus linea desberdinak ere erabiltzen baititu.

3. II. PLAN OPERATIBOAREN JARRAIPENA 2025EAN

Inklusiorako V. Euskal Planak (2022-2026) ezartzen du, betearazpen-mailan, jarraipen-txostenek zehaztu behar dutela Plan Operatibo bakoitzean aurreikusitako jarduerak beteko diren. Horretarako, atal honetan laburbiltzen dira trakzio-politikei buruzko adierazle nagusiak –aurrekontua gauzatzeari, prozesuei eta emaitzei buruzkoak–, esperimentu-proiektuak eta II. Plan Operatiboa osatzen duten ibilbide mistoak. Gainera, politika edo proiektu bakoitzaren laburpen deskriptibo bat jasotzen da, 2025ean egindako aurrerapen araberako eguneratua.

Kapituluaren egiturak Plan Operatiboan aurreikusitako jarduera-mailen eskema errepikatzen du: politikak, traktoreak, inklusio-proiektu esperimentalak eta inklusio-ibilbide mistoak³⁶.

3.1. TRAKZIO POLITIKAK

II. Plan Operatiboaren esparruan, **trakzio-politikak** "aldaketa-palanka" gisa definitzen dira, hau da, sistema eraldatzeko eta/edo ezarritako helburuak lortzeko bidean aurrera egiteko trakzio-neurriak edo azeleratzaileak izan nahi dute. Kasu guztietan, Eusko Jaurlaritzako sailek enpleguan, diru-sarreraren bermean, gizarte-zerbitzuetan, etxebizitzan, osasunean edo justizian aktibatutako politika publikoak dira, eta, beraz, ezarpen autonomikoa dute.

Atal honetan, II. Plan Operatiboan sartzen diren 16 politika palanketako bakoitzean 2025ean egindako aurrerapen nagusiak deskribatzen dira.

³⁶ Plan operatiboaren parte diren arren, erakundeei ez zaie eskatu "aldaketarako jarduerak" izeneko buruzko informaziorik. Erabaki hori justifikatzen da jarduera horiek Plan Operatiboaren aldi osorako egutegian daudelako (hau da, 2025 eta 2026 urteetarako). Horregatik, egokiagozat jo da jarduera horien jarraipena atzeratzea II. Planaren indarraldia amaitu arte.

1. Trakzio-neurria. Inklusiorako eta Diru Sarreraren Euskal Sistemaren 14/2022 Legearen hedapena amaitzea. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lanbide.

Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen funtsezko helburuak dira, batetik, diru-sarrerak bermatzeko sistemak eskaintzen dituen prestazio ekonomiko-koen estaldura eta sarbidea hobetzea, eta, bestetik, lan- eta gizarte-bizitzan kalitatezko gizarte- eta enplegu-zerbitzuetara iristeko zailtasunak dituzten euskal herritarren sarbidea hobetzea. Onartu zenetik, aurrerapausoak eman dira (173/2023 Dekretua, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Araudia onartzen duena; 5/2024 Dekretua, Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea arautzen duena; sistemaren irisgarritasuna hobetzeko neurrien garapena, eta abar).

2025ean eta 2026an hainbat alderditan aurrera egitea aurreikusten da, hala nola prestazioaren izapidetze elektronikoan, Hirugarren Sektoreko erakundeak prestazioen hartzaileen ordezkari gisa transakzio elektronikoak egiteko gaitzean, egoera administratibo irregularrean dauden pertsonen identifikazio elektronikoan, prestazioetarako sarbidea sinplifikatzean edo horiek eskuratzeko aukerarik ez izatean (*non take up*).

Finantza- Betejarazpena 2025	521.177.829 € gauzatu dira, 599.600.000 € guztira, 2025eko urrian: 332.109.843,30 € (DSBE) eta 189.067.985,64 € (BGDS).
Adierazleen eboluzioa 2025	- 93/2025 Dekretua, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuei buruzkoa, Euskal Enplegu Zerbitzuaren 14/2022 Legea ezartzen laguntzera bideratua. - DSBE: - Espedienteak (titularrak): 2024ko azaroa 58.234; 2025eko azaroa 57.399 - Onuradunak: 2024ko azaroa 99.259; 2025eko azaroa 94.532 - Nominaren batez bestekoa: 2024 33.381.473,20 €; 2025 33.056.732,84 € - BGDS: - Espedienteak (titularrak): 2024ko azaroa 28.753; 2025eko azaroa 28.501 - Onuradunak: 2024ko azaroa 69.671; 2025eko azaroa 72.348 - Nominaren batez bestekoa: 2024 18.202.890,57 €; 2025 18.810.967,95 €

